

ZAA

ZORROTZ MORROTZ • Zorrotzako herri aldizkaria • 93.alea, 2025eko maiatza

MONTSE VÁZQUEZ

MAYU

Trail korrikalaria

Imajinatzen
duzu Zorrotza
merkataritzarik
gabe?

Baduzu eskaintzarik
onena Zorrotzatik
irten barik

ZAINDU TOKIKO MERKATARITZA

EROSI AUZOAN!



www.comerciantes-zorrotza.com

EUSKARALDIAren AURKEZPEN EKITALDIA

(jaso zure txapa!!)

2025eko MAIATZAREN 15ETIK 25ERA

*Elkar mugituz
egingo dugu*

ondoren:

BERTSO POTEOA

OIHANA **BARTRA**

ARKAITZ **ESTIBALLES**

MAIATZAK 9, ostirala, 19:00etan

AEK euskaltegitik hasita

Antolatzailea



Laguntzaileak



Patroiz



!Kasi
MiKasi!

**0-18 urteko heziketa-ibilbide osoa,
ikastetxe publikoetan eta
Zorrotzatik irten gabe**



CEIP ZAZPILANDA-ZORROTZATIK IRTEN GABE

Pinadia etbaldea, 6. 48013, Zorrotza. Bilbo

☎ 94 442 48 75

✉ zuzendaria@zazpilandaeskola.eus



CEIP ZORROTZA-FRAY JUAN ELIZ

Ikastalde etbaldea, 12. 48013, Zorrotza. Bilbo

☎ 94 442 00 21 • ☎ 94 442 00 21

✉ 014159aa@hezkuntza.net



San Miguel auzunea, 10. 48013, Zorrotza. Bilbo

☎ 94 439 33 34 / 688 861 374

☎ 94 439 97 41

✉ 015078aa@hezkuntza.net

www.ieszorrotzabhi.hezkuntza.net



ZORROTZ MORROTZ
Zorrotzako herri aldikaria

93. alea. 2025eko maiatz

www.zorrotzmorrotz.eus
zm@zorrotzmorrotz.eus
@ZorrotzMorrotz
@zorrotzmorrotz
@zorrotzmorrotz

Argitaratzen du:
Zorrotzako Euskal Txokoa

Erredakzioa:

Ibai Barrios
Ainara García
Igor Gutiérrez
Aitor Marín
Naroa Peña
Iratze Pérez

Laguntzaileak:

Manu Cobo
Asier Urkiza

Koordinazioa:

Naroa Peña

Diseinua eta maketazioa:

Aitor Marín. (amc diseinua)

Zuzenketak:

Alaitz Aldabaldekreku

B Zorrotz Morrotz aldiakariak Bilboko
udalaren diru-laguntza jasotzen du.
Bilbao Edukiaren erantzule bakarrak ZM
bera eta kasuan kasu, testuaren
sinatzaileak dira.

sarrera

Sader Profersa kanpora! Adi hurrengo deialdiei!

Joan den martxoaren 27an mobilizazio garrantzitsu bat egin zen Sader-Profersa Kanpora plataformak deituta, erakundeetako ardura-dunei berriz ere esateko erantzun azkar bat eman behar dutela eta enpresa horiek auzotik ahalik eta lasterren atera behar direla. Horrek bizi-kalitate hobea ekarriko du, jakina, ez bakarrik zorrotzarrontzat, baita kaltetuak diren inguruko auzo zein herrietako jendearentzat ere. Ildo horretan lanean jarraituko dugu helburua lehenbait lehen lortzeko. Manifestazio horretan auzotarren parte-hartze handia izan zela azpimarratu nahi dugu, eta animatu nahi zaituztegu adi egotera, antolatuko ditugun etorkizuneko ekintza eta mobilizazioetan ere parte hartzeko.

Adierazi nahi dugu, halaber, hilabete asko daramatzagula Osasun Zentroaren aurrean Osakidetza osasun-sistema publikoaren funtsezko

hobekuntza estrukturala aldarrikatzen. Uste dugu oso garrantzitsua dela osasun sistema publikoa eta kalitatezkoa eskatzen jarraitzea; horregatik, elkarretaratze horietan ere parte hartzeko deia egiten dugu.

Bestalde, Usandizaga Musikaria kaleko espaloien birmoldaketa aldarrikatzen denbora asko eman ondoren, azkenean lortu dugu. Era berean, aipatu nahi dugu Udalarri seriotasunez ardura gehiago eskatu diogula auzoko garbiketa-zerbitzuari buruz, arlo horretan gabezia handia ikusten baikenuen azkenaldian. Badirudi eragina izan duela, baina adi jarraituko dugu berriro errepikatu ez dadin.

Hemen bizi garen guztion artean auzoa egiten jarraitzen dugu, eta parte hartzen dugun heinean, kohesio eta bizikidetzatza hobea lortuko dugu. Zorrotza aurrera!



B
BiziFitness
CROSSCENTER

CROSS TRAINING
eta
ENTRENAMENDU FUNTZIONALA
guztiztatzat

Zure zain gaude!

9 ZALBIDEA 63TRATA, 13 623106531

LASTER

**Elektrizitatea
elektronika**

- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
- ATEZAIN AUTOMATIKOAK
- ARGIZTAPENA
- SARE INFORMATIKOAK

TFNO./FAX: 94 442 46 35
LARRIALDIAK: 657 79 57 04

**ZORROTZA KASTREXANA
ERREP. 42. MOD. 88
ZORROTZA 48013**

**MESÓN
LUNA**

*Etxeko berezitasuna: haragiak eta arrainak
Itsaski-haztegi propioa
Eguneke menua eta menu hitzartua*

Clara Campoamor, 2
48013 Zorrotza

Tel. 94 499 01 30
www.mesonluna.es



Sader-Profersaren jarduerari amaiera emateko epemuga jartzeko eskatu die erakundeei beste manifestazio batek

Zorrotzako bi lantegi hauen lekualdatzearen inguruan eta jarduerari amaiera emateko epemuga bat eskatu zieten Udala eta Eusko Jaurlaritzari martxoaren 27an Basurtutik Zorrotzaraino bidea manifestazioan bete zuten mila pertsona inguruk

TESTUA ETA ARGAZKIA: AITOR MARIN

“Etengabe pozoi hutsa” etxebizitzetara iris-teaz nekaturik, mila lagun inguruk parte hartu zuen Sader eta Profersaren jarduerari amaiera emateko eta aire garbia eskatzeko martxoaren 27an egin zen manifestazioaren bukaeran, lantegien aurrean. Basurtuko FEVE geltokitik atera zen protesta, eta hasieran bil-dutako ehundaka pertsonari, askoz jende gehiago batu zitzairen manifestazioa Zorrotza-ra heldu zenean.

“Hondamendi hutsa” den lantegiko sarrera-ren aurrean, komunikatu bat irakurri zuten Sader Profersa Kanpora plataformako bi kidek. Zorrotzako eta inguruko beste auzo kaltetueta bizilagunak ez dira fio erakun-deek egindako promesez eta iragarpenez. Bi

lantegi hauen “lekualdaketa”ren ipuina” duela hamar urte baino gehiago hasi zela kritika-tu zuten, baina hori gauzatu beharrean, gaur “bere horma eta teilatuak hegan doaz”, eta auzotarrek horren abisua eman behar dietela larrialdi zerbitzuei.

Protestaren antolatzaileek Udalari zein Eusko Jaurlaritzari arduras jokatzeko eta jendau-rreko adierazpen publikoak egiteko eskatu zieten. Aburto alkateari eta Udalari galdetu zioten zenbat denbora gehiago onartuko duen Bilboko erdiguneko etxebizitzaren ondoan hon-dakin arriskutsuak tratatzen jarraitzea. Nora Abeteri, Mugikortasun eta Hiri-berronera-tzearen arduradunari, berriaz, beste galdera bat bota zioten; ea inoiz bere buruari galdetu dion airearen kalitatearen datuak zergatik ez diren hobetzen. “Horma hauetatik ateratzen den hautsa arnastea probatu al duzu?”

Gainera, manifestariek gogorarazi zuten Sader bi urtez jarraian hondakin arriskutsuak tratatzeko zuen muga gainditu zuela. Hala ere, Eusko Jaurlaritzak tratamendu ahalme-na handitzea baimendu dio, eta Mikel Jaure-gi Eusko Jaurlaritzako Industria sailburuari galdetu diote handitze hori aldezkarri ofizial batean noiz argitaratu den eta ea baimen hori “hondamendia den txabola” honetarako ere baliozkoa al den.

Molinos Vascosen estalkiak amiantoak dauka

Eraikinaren estalkia birgaitzeari ekitean, material toxiko horren ia hogei tona kendu beharko dira. Amiantoak eraikinaren teilatuan dago eta jausi iraunkorrak izaten ari dira azken hilabeteetan

TESTUA ETA ARGAZKIA: AITOR MARÍN

Molinos Vascos eraikineko gero eta hondatuago dagoen teilatuan geratzen diren zuntz-zementuzko plantxek amiantoak dute. Material hori toxikoa da plantxa horiek manipulatzen edo apurtzen badira. Aldundiak eraikina berreskuratzeko idatzitako proiektuaren arabera, zehazki, amiantoarekin kutsatutako 19,48 tona material kentzea aurreikusi da.

Eraikinen estalkiak zaharbertitzeko obra laster hastekoa da, lizitazioko azken fasean dago kontratua behin esleitutakoan. Baina bitartean, eta batez ere azken hilabeteotan, estalkia gehiago eta oso azkar hondatu da eta teilatuko plantxa batzuk lurrera erori dira.

El Correo egunkariako informazio baten arabera, Aldundiak azaldu du Bilbo Udaleko suhiltzaileak adi daudela egoerari. Albiste beraren arabera, Udalak berak adierazi du “ez dagoela arriskurik, horma bat eta hesi perimetral bat daudelako”, eta aldizka ikuskapenak egiten

direla, balizko arrisku berriak antzemateko eta egoera aldatu ez dela ziurtatzeko. Bilbo Auzo Elkartearen Federazioa, ordea, ez dago ados, eta kezka handiz hartu du albistea. Eraikinaren estalkia kolapsatzear dagoela urteak salatzen eman ondoren, eskandalizatua agertu da jakitean “airean erortzen eta ikusten ari garena oso material kantzerigenoa dela”.

Federazioak azalpenak eskatu dizkio Udalari jakiteko nola ez dituen orain arte neurriak hartu. Izan ere, 7/2022 Legeak amiantodun instalazioen eta kokalekuen errolda bat egitera eta 2023ko apirila baino lehen hura kentzeko plangintza-egutegia egitera behartzen bazuen ere, Udalak 2024ko abenduaren ez zeukan izapide hori beteta, Molinos Vascos eraikinean amiantoak zegoela jakin arren. Era berean, material toxikoa erabat kendu arte, bizilagunen osasuna babesteko eta amiantoaren eraginpean ez egotea bermatzeko zer babes-neurri hartuko diren argitzeko eskatu dio Udalari Auzo Elkartearen Federazioak.



MADNESS KAFETEGIA
Elena eta Javier
Zalbidia etxera, 5^a atzea
ZORROTZA
48013 BILBO

MADNESS

Tel. 94 441 62 75



13 urte

ZORROTZA F.C.
kirolarekin,
auzoarekin eta
euskararen alde!



Vía gráfica

• diseinu grafikoa
viagraficzorrotza@gmail.com

Sader enpresako kamioientzat aurreikusitako aparkaleku berria auzotarrok erabiltzeko egokituko da

Udalak atzera egin du eta Zirgarien kaian eraikitzen ari den parkearen proiektuan aldaketak egin ditu

TESTUA ETA ARGAZKIA: AITOR MARÍN

Zirgarien kaian eraikitzen ari den parke berraren ondoan, Sader enpresako kamioientzako aparkalekua eraikitzea aurreikusita zegoen hasierako proiektuan. Horrela agertzen zen proiektuaren planoak publiko egin zirenean. Horrek kexa ugari sortu zituen. Auzo Elkartek adibidez, oso gogor kritikatu zuen enpresa pribatu bati espazio publikoa oparitzea aparkaleku pribatu bat izan dezan auzoko bizilagunen kexa nagusienetako bat aparkaleku falta denean. Gainera, auzotarren ondoeza are handiagoa izan zen, auzoaren azken urteotako aldarrikapen nagusia industria-hondakinak tratatzeko lantegi horren lekualdaketa izan delako, usain txarrak eta etengabeko eragozpenak sortzen baitizkie Zorrotzako eta inguruko bizilagunei.

Baina, azkenean, Udalak atzera egin du eta proiektuan aldaketak egin ditu. Sader enpresako kamioientzako aparkalekua eraikitzea aurreikusten bazen ere, orain auzotarrok erabiltzeko guztira 47 plaza izango dituen aparkaleku gisa egokituko da. Gainera, Auzo Elkartearen hitzetan “enpresa kutsagarri bati

oparitutako aparkaleku pribatua ezkutatze-ko asmoz” eraikia izango zen horma, hasiera batean lau metrokoa izango zen arren, orain metro eta erdira murriztuko da.

Halaber, 16 autorentzako aparkaleku berri bat egingo da Sader ondoan dagoen egungo bidegorrian eta 30 leku izango dituen beste bat Toro eta Betolaza pabilioien ondoan. Azken hori oso urrun dagoelako eta horma batez ezkutatuta geratzen denez, ez du aukera bideragarritzat jotzen Auzo Elkartek.

Landa parkea da izendapen egokia

Barrutiko Batzorde Kulturalak, Auzo Elkartek egindako proposamena aintzat hartuta, “La Landa” proposatu bazuen ere, parke berria izendatzeko Euskaltzaindiak ebatzi du izendapen egokia Landa parkea dela. Euskaraz gaur egun herritarren artean La Landa leku izena normalizatuta egon arren, izena arautzean kontuan hartu behar baita indarrean dagoen legedia, non toponimoak dagoen jatorrizko hizkuntzan eman behar diren. Nahiz eta erdaraz, ohikoa den ahoz erdal generikoa gehitzea toponimoa euskarazkoa zein erdarazkoa izan, erabilera hori ez da aintzat hartzekoa izendapen ofizialaren mailara eramateko Euskaltzaindiaren ustez



**Zorrozoitibidea
kalea konpontzeko
proiektuaren hirugarren
fasea amaitu dute**

ZORROTZ MORROTZ

Obra guztien azken zatia baino ez da geratzen orain: trenbide-pasaguneko bi espaloi zatiak lotzea eta Garbigunea zeneko eremua berrantolatzea, alegia.

Clown Zorrotza jaialdiak adin guztientzako bost ikuskizun eskainiko ditu doan maiatzaren 9tik 11ra

TESTUA: ZORROTZ MORROTZ

Beste urte batez, Azoka parkeak adin guztientzako antzezlanak hartuko ditu, nazioarteko taldeen parte hartzearekin, maiatzaren 9tik 11ra. Umorea eta gozamenia ziurtatuta dauzka Clown Zorrotza jaialdian programatutako bost lanetako edozein ikustera hurbilduko den ikusle orok. Beti bezala, ikuskizun guztiak dohainik eta parkean izango dira.

Jaialdia La Pez taldeak irekiko du “*J. M. Brutal*” antzezlanarekin maiatzaren 9an, ostirala, arratsaldean. Inozientziaren istorioa, amets egiten, jolasten, asmatzen jarraitzeko eta gerra guztiak gelditzeko modua bilatzeari buruzko istorioa da honako hau, jaialdian euskaraz izango den bakarra. Honen ostean, La Roca producciones talde asturiarrak “*Zozobra*” antzeztuko du. Carmen andrea eta Alejandra,

harekin beti egoten den zerbitzaria, hiriaren erdialdean ibiliko dira. Bata pasodoble burrunba egiten duen gurgildun aulki batean eserita, bestea hari bultzaka.

Larunbatean, arratsaldean berriro ere, Bartzelonako La Churrik irekiko du saioa, “*Wooooow*” antzezlanarekin, eta “jainkosaren mailako bizimodua” kontzeptua zer den azalduko dute. Ondoren, Frantziako Los Putos Makinas taldeak muturreko poesian oinarritzen den “*Piti Peta Hofen Show*” ikuskizuna aurkeztuko du.

Japoniako talderik berritzaileenetako baten beste komedia batek itxiko du Clown Zorrotza maiatzaren 11n. Eguerdiko 12etan hasiko den To R Mansion taldearen “*Dive/Journey*” lan paregabe eta irudimentsuarekin bukatuko da aurtengo jaialdia.

Euskaraldia Eguna ospatuko da auzoan maiatzaren 24an

ZORROTZ MORROTZ

Zorrotzako euskaltzaleak antolatzen hasi dira Euskaraldian parte hartzeko. Maiatzaren 15tik 25ra arte, Euskal Herri osoan egiten den euskarazko ariketa sozialik handienean, zorrotzarrok 11 egun euskaraz bizitzeko erronkari lotuko gatzazkio: ahobizi rola aukeratu dutenek uneoro euskarari eutsiko diote; eta belarriprest aukeratu dutenek, berriz, haiei euskaraz egiteko eskatuko dute, baina nahi duten hizkuntzan egingo dute, euskaraz zein erdaraz, egoeraren arabera. Helburua ohitura aldatetarik sortzea da, hots, gero eta elebidunago den gizarte ho-

netan, euskaraz egiten dutenen eta egin ez baina ulertzen dutenen arteko komunikazioa natural bilakatzea.

Baina rola aukeratzeaz gain, hainbat ekintza antolatuko dira gurean. Maiatzaren 9an, ostiralean, aurkezpenera egingo da AEK euskaltzegan, eta bertan izan eman duten guztiak beren txapla hartzeko aukera izango dute. Ostean, Oihana Bartra eta Arkaitz Estiballes bertsolari handiekin, bertso poteoa egingo da. Bi asteburu geroago, Euskaraldia eguna ospatuko da Zorrotzan. Egitaraua oraindik guztiz zehaztuta ez dagoen arren, umeentzako jolasak, antzerkia, herri bazkaria eta euskaraz ondo pasatzeko aukera ugari egongo direla ziurta dezakegu. Adi gure sare sozialei egitaraua osorik ezagutzeko!

// Zenbat eta euskara gehiago ikasi, orduan eta gustukoagoa dut //

WHITNEY LINETTE LÓPEZ

Jaiotokia: La Vega (Dominikar Errepublikak)

Noiztik: 2017tik hemen. (2011tik)

Adina: 29 urte

Lanbidea: Delineatzailea.

Oso gazte atera zen Whitney Dominikar Errepublikatik. Hainbat lekutan egon ondoren, Castron bizi izan zen, baina Bilbon ikasten zuenez, hona mugitu ziren. Oso gustura dago, besteak beste, hemen kuadrillan beti dagoelako zer egin.



TESTUA: AINARA GARCÍA. **ARGAZKIAK:** AITOR MARÍN

Nolatan edo zergatik etorri zinen?

Amaren erabakia izan zen, adin txikikoa izanda, berarekin eta anai-arrebekin etorri nintzen. Nahiz eta gure familiaren egoera edo bizi kalitatea txarra ez izan, jaioterriko segurtasun falta eta bertan bizitzeko beldurra izan zen hona etorzeko arrazoi nagusia. Hainbat lekutan bizi izan gara; hasieran Portugalen egon ginen, handik Leonera, Ponferradara eta Castrora joan ginen, azkenik, Bilbon geratzeko. Castron bizi ginela, nire ahizpa EHUn ikasketak egiten ari zen eta ni ere Bilbon bertan goi mailako gradua egiten ari nintzen. Hainbeste joan-etorri egiteak zentzurik ez zuenez, familia osoa Bilbora bizitzera etortzea erabaki genuen. Orain ez nuke Bilbo ezergatik aldatuko.

Gogorra egin zitzaizun lan eta bizi ohituretara moldatzea?

Ez zait gehiegi kostatu, alde batetik, hona heltzean gaztea nintzelako eta, bestetik, gure herriek lotura handia dutelako, herri latinoak izanda eta partekatutako historia kontuan hartuta, arlo askotan ezaugarri eza-gunak topatu ditut. Ezberdintasun nagusiak, agian, bertan familiaz inguratuta bizi ginela

eta klima aldaketa izan dira. Jaioterriko klima guztiz tropikala zen, urte osoan beroa. Hona etortzean, guztiz kontrakoa topatu genuen. Gogoratzen dut hona heldu bezain laster, abenduan iparraldean oso ohikoa den bezala, 21 egun eguzkirik gabe igaro genituela. Izugarria iruditu zitzaidan! Denborarekin guztiz moldatu naiz eta gaur egun ez dut beroa jasaten.

Zer da hona heltzean gehien harritu zintuena?

Bilbo oso garbia eta ondo antolatuta iruditu zitzaidan, estatu espainiarreko beste hiriekin alderatuta ere bai. Gauza berri asko daudenez, garbitasun sentsazioa ematen du. Eta enpresa-bazkariak egitean, mahainguruan ordu pila egotearena ez dut oraindik oso ondo ulertzen. Hori bai, txuletoia jatera oso ondo ohitu naiz.

Oso desberdina zen jatorriko bizimodua auzokoaren aldean?

Gauza asko oso antzekoak dira. Nire jaioterrian naturaz inguratuta egotera ohituta nengoen eta Zorrotzan oso ondo moldatu naiz inguruan naturagune asko daudelako. Hamar minututan mendian egon naiteke, eta

“**Hemengo
jendeak kalean
egiten duen bizitza
oso gustukoa dut**”



horrek etxean bezala sentiarazten nau. Bestalde, hemen egiten den kaleko bizimodua oso gustukoa dut. Han, arratsaldeko seietan gaua da eta, segurtasun arazo larriak daukenez, lagunduta irten behar da ala etxean gelditu. Familiarekin bizitza egitetik edozeinek denbora pasatzera igaro naiz: familia, lankideak, ikaskideak, pintxo-potea... talde edo kuadrilla ezberdinekin beti dago zer egin. Nahiz eta kontrakoa esan zidaten, Bilboko jendea oso abegitsua da.

Zer da Zorrotzatik gehien gustazen zaizuna? Eta gutxien?

Gehien gustatzen zaidana, inguru berdea eta jendeak kalean egiten duen bizitza. Gainera garraio publikoaren sarea oso ondo konektatuta dago erdigunearekin. Eta gutxien, agintariekin auzoa ahaztuta dutela. Nahiz eta zergak berdinditu, guk edozein gauza lortzeko borrokatu behar dugu. Eta nola ez, Sader-Profesa eta Zabalgariaren kiratsak.

Zein da zure lanbidea?

Delineatzailea naiz, eta orain dela gutxi arte lanean egon naiz. Orain buru-belarri nabil oposizioak prestatzen.

Zelan moldatzen zara euskaraz?

Egia esan, oso gustukoa daukat. Harrigarria da. Nahiz eta oraindik euskaltegian denbora gutxi eraman, zenbat eta gehiago ikasi, orduan eta gustukoagoa dut.

Zure herrira berriro bizitzera bueltatzeko asmoa duzu?

Urtean 3-4 aste joaten saiatzen naiz, bertan familia ugari baitut bisitatzeko eta, Dominikar Errepublikaren etengabeko garapenean dagoen herria denez, bertako hainbat gune ezagutzeko egun batzuetako tartea hartzen dut. Inork ez daki zer gertatu daitekeen; baina, egia esan, ez dut bertara bizitzera bueltatzeko inolako asmorik, Bilbon oso gustura nago eta hemen bizi nahi dut.



Taramona

ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK

Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75
Telefonoa: 94 442 44 68

TAILERRAK ETA ZERBITZUAK

Zorrotza-Kastrexana errep. 75
Telefonoa: 94 442 17 12

cafe**txinbo**

Espezialitateak:

Tapak eta errazioak
Kanapeak



Abaro estrata, 10
Tel. 94 608 85 74

RISKO
Burdindegia

Zorrotza Kastrexana, 7
Telefonoa: 94 441 64 86



"All Iron" emakumezkoen Athletic-en lehen lagunartea, Zorrotzan sortua

Sei urte dira auzoko lagun batzuek emakumezkoen Athletic zaleen lehen taldea sortzeko ideia izan zutela. Urte eskas horietan, "All Iron" lagunarteak herriz herri lagundu du klub zuri-gorria, eta Athletic zein beste taldeetako zaleekin batera hainbat ekimenetan ibili da.

TESTUA: IGOR GUTIÉRREZ | ARGAZKIAK: ALL IRON TALDEA

Eder Martínez de Aramayona López "All Iron" lagunartekoaren sortzaile eta lehendakaria da. Urteak zeramatzan emakumezkoen Athletic taldea jarraitzen eta berau indartzeko zer egin pentsatzean zaleen taldea eratzea bururatu zitzaion. Berehala, auzoko bi laguni bere ideia azaldu eta aurrera egitea erabaki zuten.

Ederrek bere ama Karmeleri zor dio futbolarerikiko grina. "Ama Athletic zale amorratua zen. Aitak, berriz, ez zuen futbola gustoko". Ez dauka ahazteko amak 83an Gabarra ikusteran eraman zueneko. "Lagunartea sortzean amari omenaldi bat egin nahi izan nion".

Hala, Athletic-ekin kontaktuan jarri ziren eta oniritzia eman zieten sartzeko, eta 2019ko apirilaren 24an "All Iron" lagunartea ofizial-

Une honetan 52 bazkide dira, gehienak Zorrotzakoak

ki erregistratu zuten. "Amaren urtebetetze egunean jaio ginen", dio Ederrek harro. Inaugurazioa, berriz, 2023ko apirilean egin zen, Athletic-ek plaka oroigarria eman zienean.

Lagunarteak Madness tabernan du bere egoitza eta une honetan 52 bazkide dira, gehienak Zorrotzakoak. Futbolari senide batzuk ere bazkide egin dira, lagunartea hauspotzeko. Eta kanpotik ere zenbait kide animatu zaizkie: Ingalaterra, Melilla, Madril...

Jokalariekin harreman zuzena daukate, "beraien familiakoak bagina bezala". Eder bere argazki-makinarekin doa partida guztietara. "Argazkiekin jakalarien kromoak egin ditugu, ez publikatzeko asmoz, beraientzako oroigarri gisa baizik". Horrez gain, "Nekane Diez" saria sortu dute, taldeko jokalaria onenari dagokiona. "Oroigarria Iñaki Garcia Ergüin Ruinek egin zigun, Athletic-en ehungarren urteurreneko ikurra diseinatu zuen artistak". Ane Azkonak jaso zuen 2023-24 denboraldiko saria.

Hainbat bidaia egin dituzte kadete C eta B zein Lehen taldearekin: Oviedo, Tenerife, Coruña...



Giroa familiartekoa da, ume asko joaten dira partidetara. Ederren hitzetan, “ez dauka zerikusirik gizonen futbolarekin”. Gainera, derbia dagoenean, Eibar edo Errealeko zaleekin bazkaltzen dute, denak batera. “Giroa benetan ederra da”.

Horrez gain, iaz, “All Iron”-ek Zorrotzan egin-dako Peñista Egunean ere parte hartu zuen, Harrapari eta Zurigorri peñekin batera.

Emakumezkoen futbolari dagokionez, Ederrek ikuspegi baikorra du. “Lehen taldea laugarren dago sailkapenean, Champions-etik oso puntu gutxira. Oso talde gaztea da, 22 urteren bueltan dabilta, eta ondo baino hobeto jokatzen dute”. Bere ustez, zaleen aldetik

Giroak ez dauka zerikusirik gizonen futbolarekin

etorri behar da bultzada. “Askorentat Lezama urrunegi dago, baina trenean azkar batean iristen da”.

Elkartearen ikurra

“All Iron” elkartearen logotipoari so eginez, jokalaria bat zelaian eserita ageri da, lepoa emanda, elastikoan 24 zenbakia daramana. “Amaren urtebetetze eguna da, bere omenez”. Bere gainean, San Mames zaharreko arkua, egun Lezaman dagoena.

SAZ
OKINDEGIAK

Zorrotzako labea

Zugandik gertu

Zorrotza Kastrexana errepeida, 34
Tfno. 94 441 09 71
Zorrotza - 48013 BILBO

ESKaintza PROGRESIBOETAN
ARMAZOIA + KRISTALAK GOI-GAMAKOAK
265€

Sustapena indarrean +- 4.000 esferako eta -2.000 zilindroko arteko graduazioetarako
RPS: 213/18

ibaretaluxury
OPTICA

ROCKET TAVERN

Plater konbinatuak, hanburgesak, oilasko erreak...

FRAI JUAN, 8 • Tel 94 655 68 98

MONTSE VÁZQUEZ: Trail korrikalaria

// Izena eman nuen mendiko lehen lasterketa 30 kmko Trail Kosta izan zen, eta irabazi egin nuen //

Montse Vázquez 30 urterekin hasi zen korrika egiten, lehen alaba izan ondoren, haurdunaldiaren ostean berriro ere sasoian ipintzeko. Hasieran korrika egitea oso gustuko ez zuela onartu arren, laskerketetan nahiko ondo lehiatzen zuela konturatu zen, hain ondo non bere lankideek animatuta parte hartu zuen lehen mendi lasterketa irabazi zuen. Une hartan kirol ibilbide bikaina hasi zuen. Tartean, beste hainbat kirol lorpenen artean, Euskadiko eta Espainiako kilometro bertikaleko txapelduna izan da birritan. Gaur, 53 urterekin, eta urtebetez lesionatuta egon ondoren, sentsazioen arabera entrenatzen da. Bere ibilbidea aztertuz, orain, lehiaketaz harago trailez gozatzen ikasi duela aitortu du.

TESTUA ETA ARGAZKIAK: AITOR MARIN

Nola hasi zinen trail egiten?

Ni gimnasia irakaslea nintzen, eta nire lehen alabaren amatasun bajan, errekuiperatzeko korrika egiten hasi nintzen. Lasterketa motzak egiten hasi nintzen, etxetik Kastrexanaraino eta buelta, adibidez. Hasieran ez zitzaidan gehiegi gustatzen, baina pixkanaka lasterketetan izena ematen hasi nintzen, asfaltoan... Eta lehen postuetan geratzen nintzen. Beraz, argi dago ez zitzaidalda batere gaizki ematen. Nire lehen mendi-lasterketa, Forum Sportek antolatzen duen Kosta Trail bat izan zen. Nik bertan egiten dut lan, eta hiru lankidek animatu ninduten haiekin izena ematera, nahiz eta ordura arte nik ez nuen inoiz mendian korrika egin. Beraz, nire lehen mendi lasterketa, 30 km. asfaltoan korrika egiteko zapatilekin... eta hala ere, lasterketako txapelduna izan nintzen. Emaizta horren ostean, Sestao

Alpino kluba nire bila etorri zen, eta probatzea proposatu zidaten. Hasiera batean ezetz esan arren, geroago hala egin nuen

Eta horrela hasi zen zure kirol-ibilbide arrakastatsua...

4 aldiz irabazi dut Kosta Traila; 2 aldiz izan naiz Euskadiko Trail txapelduna, bertikaletako markak hautsi ditut; 8 urtez Espainiako eta Euskadiko txapeldun izan naiz gara klubetako lehiaketan; ... Oso harro nago lorpen hauetaz guztiez. Inoiz ez dut neure burua atleta handizat hartu, baina beti gustatu izan zait onekin lehiatzea. Hainbat urte lehiatzen ibili ondoren, berriz, orain gozatu nahi dut, eta pozik nago taldekide gazteei laguntzen eta gozarazten. Iaz geldirik egon nintzen lesioen erruz, eta horrek lagundu dit gozatzen ikasten, eta konturatu naiz ederrena ez dela dortsala janztea eta lehiatzea.



“ **Lasterketa gogorrak eta desnibel handikoak gustatzen zaizkit. Igoerak dira nire indargune handiena** ”

Zer gertatu zitzaizun min hartzeko?

Duela bi urte ultra asko (60 km-tik gorako lasterketak) egin nituen eta mina izaten hasi nintzen... Pubalgia bat arrastaka eraman nuen bi urtez, baina ez nintzen gelditu aurreikusita nituen lasterketa haiek egin nahi nituelako... Baina gorputza jakintsua da, abisuak ematen ditu, eta ni jada ez naiz gaztea. Iaz pubalgia bat izan nuen, eta horrek behartu ninduen gelditzera, eta urte eta erdi eman dut dortsal bat jantzi gabe.

Joan den martxora arte...


Bai, dortsal bat jantzi nuen berrirori Benidormeko *Puig Campana* kilometro bertikalean. Oso gustura aritu nintzen. Gailurrera iristea nuen helburu, lasterketa amaitzea alegia. Lortu nuen, eta, gainera, maila handiko lehiaketa batean hamargarren geratu nintzen sailkapen nagusian eta hirugarren nire kategorian.

Zein da zure kirol lorpenik garrantzitsuenak?

Castelloneko *Marató Dels Dements* maratonia aipatuko nuke. Inoiz egin dudako lasterketarik gogorrena da. Gonbidatu ninduten, eta parte hartu nuen lehenengo urtean ez nekien zer aurkituko nuen. Hasi aurretik, beste korrikari batzuk harrituta geratu ziren ni mendiko makilarik gabe ikusi nindutenean: “zu horrela ez zara helmugara iritsiko...” Ba lehena iritsi nintzen eta txapelketa irabazi nuen. Oso lasterketa teknikoa zen, gainera. Ez zegoen ezer berderik, ezta lokatzik ere, eta niri izugarri gustatzen zait korrika egitea lokatza badago.

Zer lasterketa mota duzu gustuko?

Lasterketa gogorrak eta desnibel handienak. Zenbat eta desnibel handiagoa, orduan eta gusturago ibiltzen naiz eta abantaila handiagoa dut. Ikaragarri gustatzen zaizkit bertikalak. Nire lehen lasterke-



“Urtebete lesionatuta egon ondoren, gozatzen ikasi dut eta konturatu naiz politena ez dela dortsala jantzita lehiatzea

ta bertikala Anboton izan zen. Marka hautsi nahian zebilen Ana Conde eta Oihana Kortazarrekin batera iritsi nintzen. Horrelako lehiaketetan, kirolari onenak azkenak ateratzen dira. Ni haiek baino minutu gutxi batzuk lehenago atera nintzen, baina hala ere, onenekin batera heldu nintzen gora, eta niretzat hori zoragarria izan zen. Jende pila bat zegoen igoeran animatzen... Izugarri gustatu zitzaidan.

Nire indargunea horrelako igoera-mota da. Logikoena da mendiko lasterketak jaitzieretan irabaztea, baina ni ez naiz batere teknikoa. Beraz, badakit irabazi nahi badut, minutu askoko aldearekin iritsi behar dudala gora. Jaitsieretan, batzuetan batez ere, behe-rantz begira noa, beldur pixka batekin... Izan ere, mendiari errespetu apur bat ere badiot.

Zenbat denbora ematen duzu eta ematen zenuen lehen entrenatzen?

Lehen denbora asko ematen nuen. Entrenatzaile pertsonalak nituen, eta haiek ezarritako planetara egokitu beharra dago: indarra, serieak edo dena delakoa... Iraupen-lasterketa tokatzen bazen, goizaldeko 4etan jaitzeko beharra zegoen, eta frontalarekin mendira arratsaldeko 14ak arte... Lasterketa mota bakoitzak denbora eta entrenamendu mota desberdinak eskatzen ditu. Orain, berriz, askoz gutxiago: sentsazioen arabera entrenatzen naiz: gorputzak eskatzen didanaren arabera.

Domina eta kirol lorpen guztiez gain, zer gehiago eman dizu trailak?

Jende zoragarria ezagutu izana. Honen guztia onena aurkitu dudana jendea da.

Suposatzen dut atleta gutxi bizi daitezkeela honetatik. Babeslerik edo laguntza ekonomikorik izan duzu?

Ez, ez dudalako inoiz hala nahi izan. Zerbait eskaini izan didate, baina beti egin diot uko. Nire familia eta lana lehenetsi ditut beste aukera batzuen aurrean... Dirua irabazi dut,

// Esan dezaket kirol honetan ez dudala bete gabeko helbururik //

ZM 115

Kirolari erreferenteren bat?

Asko, baina bat aukeratu behar badut, Maite Maiora nabarmenduko nuke.

Ba al da igo gabeko eta gogoko zenukeen gailurra ala lehiaketaren bat?

Camille Xtream edo Zegama Aizkorri berriz egitea gustatuko litzaidake. Martxoan lehiatu nuen Puig Campana buruan sartuta neukan, bere garaian, lehiatu behar nuenean, bertan behera gelditu zelako.

Trailen bete gabeko ametsik geratzen al zaizu?

Ez. Esan dezaket ez dudala arantzarik sartuta. Mendiaz, jendeaz eta kirol honetan egin ditudan lagunez gozatzea lortu dut. Ezin dut gehiagorik eskatu.

Gure inguruak aproposak dira menditik korrika egiteko. Zein da gure inguruko zure lekurik kuttunena?

Zorionez, egia da hemen eremu asko daudela entrenatzeko eta gozatzeko. Bat aukeratu behar badut, Ganekogorta, Fuente del Espinoko igoeratik esango nuke. Dena den, jende askorik ez dagoen edozein leku. Orain, batez ere igandeetan, jende asko egoten baita mendian.



bai, baina honek ez du bizitzeko behar beste ematen. Adibidez, Bilboko bigarren gaueko maratokia 1.600 euro irabaztea lortu nuen. Ez zegoen letra txikirik eta sariak pilatzeko modukoak ziren; bigarren geratu nintzen sailkapen nagusian eta hemengo korrikalarien artean lehena. Bi sariak batuta, maratokia irabazi zuen atleta etiopiarra baino diru gehiago irabazi nuen. Baina lehen esan bezala, oso jende gutxi bizi daiteke kirol honi esker, nahiz eta oso kirol zorrotza izan, eta uste dut traileko kirolariok ez dugula merezi dugun errekonozimendua.

Familia, lana... Nola ateratzen duzu denbora entrenatzeko eta lehiatzeko?

Ahalegin handiekin eta buruhauste handiekin, ez pentsa, igande goizetan adibidez familiarekin gosalduta ahal izateko. Egia da kirolari denbora asko eskaini eta eskaintzen diodala, bai, asko gustatzen zaidalako. Baina beti izan dut oso argi, lehenengo gauza nire familia zela; bigarrena lana, eta ondoren kirola.

“Sponsorrak izateari eta beste aukera batzuei uko egin diet. Familia eta lana lehenetsi ditut beste balizko aukeren aurrean





AGENDA

Maiatzak 2, ostirala

21:00. Gaztetxean.

Kontzertua: VARGAS BLUES BAND.

Sarrera: 20€ + gastuak

Maiatzak 9, ostirala

CLOWN ZORROTZA. Azoka parkean.

Doan. **Adin guztientzako antzerkia:**

18:00. LA PEZ: "J.M. Brutal"

19:00. LA ROCA PRODUCCIONES:

"Zozobra"

19:00. AEK euskaltegian.

EUSKARALDIaren AURKEZPENA

Ondoren, **BERTSO POTEOA:**

OIHANA BARTRA

+ ARKAITZ ESTIBALLES.

Maiatzak 10, larunbata

CLOWN ZORROTZA. Azoka parkean.

Doan. **Adin guztientzako antzerkia:**

18:00. CÍA LA CHURRY: "Wooooow"

19:00. LOS PUTOS MAKINAS:

"Piti Peta Hofen Show"

20:30. Gaztetxean.

Kontzertua: GIGATRON. Sarrera: 15€

Maiatzak 15, osteguna

18:30-19:30. Lápices liburudendan.

Liburuen aurkezpena: HAIZEA LÓPEZ.

Maiatzak 23, ostirala

20:00. Gaztetxean.

Kontzertua: BLAKE.

Sarrera: 18€ + gastuak

Maiatzak 24, larunbata

EUSKARALDIA EGUNA.

Adi gure sare sozialei!!

21:00. Gaztetxean.

Kontzertua: BOOM BOOM KID.

Sarrera: 12€ + gastuak

Maiatzak 30, ostirala

20:00. Gaztetxean.

Kontzertua: JAVI MEDINA.

Sarrera: 18€ + gastuak

Zure elkartearen ekitaldiak ZMeko agendetan (aldizkarian eta webgunean) iragartzeko, **zm@zorrotzmorrotz.eus** helbidera idatzi.



Pleibak

Miren Amuriza Plaza.

Susa. 2024. 160 orrialde.



Nerabe paisaia rural-poligone-ro bat, institutuko korridore aten-poralak, Morora busean jaistea eta belodromora motorrean igotzea, Hemendik At, Chenoa, Su Ta, ... erantzun gabeko perdidak, behor hezurak, istripu bat. Umezaroa elkarren itzalean zabuka igaro ostean, gaur da eguna kalean gurutzatu eta batak bestea ignoratzen dutena. Dis-

tantzia horrek sorrarazten dion amorrazio retroaktiboak sakatuta zuzentzen zaio Jone Pollyri; neskatoran, ahoak nola-hala estali eta eskugaina eskugainaren kontra igurtziaz musukatzen zuen txaleteko bizilagunari.

Ezer gertatu ez zenean gertatu zen guztia jasotzen du Miren Amurizaren bigarren nobelak, egonezin primario bat, partekatua izan zen bide baten adarkatzea. Sasoi baten erretratua da kontakizun hau, belaunaldi bat ordezkatzan duten erreferentzia ugariarekin eta zikinak jandako hizkuntza batekin eraikia.



DENA: "Anabasa"

(Bonberenea Ekintzak / Betepaeta, 2025)



Ondarroako hirukote gaztea bueltan da. Hiru urte igaro dira "Zure Mugadun Hutsune" beraien bigarren lana argitaratu zutenetik eta Euskal Herrian hainbat kontzertu eman ostean, 2023an urte eta erdiko geldialdi luze bat hartu zuen taldeak.

"Anabasa" izena hartu du Denaren hirugarren lan luzeak, eta 10 kantuz osatuta dago. "Anabasa eremua" filmari keinu eginez, honek bezala, portua du eszenatoki nagusi. Portuak badoan eta datorren jendea gurutzatzen den lekuak dira. Lekuez hitz egiten du diskak.

2024ko abuztua eta azaroa bitartean Karlos Osinagak grabatu, ekoiztu eta nahastu du. Masterizazioa ere berak burutu du. Lan horiek guztiak Bonberenea estudioan, Tolosan, egin dira. Lana grabatu ostean, Unai Aretxabaleta baxu-jotzaileak taldea utzi eta Beñat Bidgainek hartu zuen bere lekua. Azken honek egin ditu argazkiak Ondarroako betoizko portuan. Diseinua eta maketazioa, aldiz, taldeko beste Beñaten (Eizagirre, abeslari eta kitarra-jotzailea) esku.

Heldutasuna nabaritzen da konposizio berrietan; proposamen oso interesgarria, zalantzarik gabe. Dut talde mitikoa erreferentziat hartuta, beren estilo propioa jorratu dute.



PINTXOTAN



Txerri-belarri brotxeta galiziar eran

Zailtasun maila:
Erraza.

Prezioa: 2,20 euro.

Osagaiak: Txerri-belarria, gatza, piperrauts mina eta oliba olio.

Egosi txerri-belarria 30 minutuz presio-eltzean. Egosita dagoenean, zatitu eta zulatu zazpi zatitan, gutxi gorabehera. Azkenik, gatzarekin, piperrauts minarekin eta oliba-olioarekin ondu.


On egin!

JAI ALAI TABERNA

Ordutegia:

Astelehenetan itxita.
Asteartetik igandera
12:30etik 23:00etara

**Abaro estrata, 12.
Zorrotza**



Jai-Alai
kafetegia



Abaro estrata, 12
94 490 12 59

Zure iragarkia

ZM
aldizkarian

Euskara
sustatu
Zorrotzan!!

Tarifak eta informazioa:
zm@zorrotzmorrotz.eus



FARMAKOTEGIA
SUSANA
URRITIKOETXEA

Astillero 1. 48013. Zorrotza
Tfno. 94 441 61 46



Pastorekorta (591 m.)



MANU COBO

Ganekogorta mendigunaren gailurra, ekialdean. Pastorekortako lepoak (486 m) Pagasarri menditik (672 m) bereizten dau. Mendiko toponimia gaztelaniazko “Pastor” eta euskarazko “korta” berbek osatzen dabe. Izen hoiek antzinako lurralde-mugape bati egiten dautsie erreferentzia: “kortak”.

Mendi horretarako sarbide klasikoak Bilbo (10 m) eta Arrigorriaga (59 m) izango lirarteke, Nerbioi ibaiaren haranean. Lehenengo kasuan, Pagasarri inguratu behar da Pastorekortako lepora iristeko (486 m). Bigarren kasuan, gailurrera iristen da tontorretik ekialdera jotzen dauen maldetatik, Arboliko gaina igarota.

Auzotik Pagako bidea hartute, basozainaren etxolan, gora egin beharrean, apur bet jeitsi eta Artabe larretatik Pastorekortako landaren lepora helduko gara, ezkerrera jo eta azken aldatza gogortxue hartute goien egongo gara. Gaur egun basoa berreskuratu da nahiko eta gune polite da. Itzulikeran pistatik jeitsi zuzenean Larraskiture, Handik Peinaskal, Errekalderra, pote bana eta Altatik (Kastrexana Gana, 110 m) etxera.



TXOKO FEMINISTA



Emakumeak desabantaila gehiagorekin abiatzen dira mundu publikoan eta lan-munduan, eta horrek zerikusia du eremu pribatuan betetzen duten rolaekin.

Espainiar estatuko CIsen 2024ko estatistiken arabera, emakumeek gizonak baino denbora gehiago eskaintzen diete zaintza-lanei (412 minutu/eguneko, 228ren aurrean) eta etxeko lanei (172 minutu/eguneko, 126ren aurrean).

Emakumeak zaintza-lanen arduradunak izanda, denbora gutxiago eskaini diezaiokete

te ordaindutako lanari, eta horrek eragina du oinarritzko soldatan, merezimenduetan, aitortzan?? eta soldata-osagarriak lortzeko aukeran. Gainera, zaintza-arrazoiengatik eszedentzia eta lanaldi partzial gehien eskatzen dituztenak dira. Horrek, bide batez, promozio-prozesuetan desabantailan egotea eragiten du, merezimendu eta prozesua prestatzeko denbora gutxiago edukitzen baitute.

Ezinbestekoa da zaintza arloan ere gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak murriztea, egoera hau konpentsatzeko eta benetako berdintasunerako bidean egoteko.

IRATZE PÉREZ

SALAKETA ARGAZKIA

Bilbao berrian, euskararekin, zaharrak berri.

Zirgarien parkeko lanetan kartel hau topatu dugu. 2025ean, Bilbao berri egin nahi duten honetan, euskaldunontzat, berdina da *eskerrera* (sic) ala eskuinera begiratuta, komunikazio eta karteleria ofizialetan, errespetua zor zaigu. Imajinatzen al duzue horrelako *desbidea* (sic) gaztelaniazko testuan?

Benetako Bilbo berria lortzeko bidean, kartelerian euskaraz horrelako astakeriak berriro ez argitaratzeak gutxieneo eskakizuna izan beharko luke.



ehbildu

STORKIZUNA DA ORAIN

Esperantzaren nazioa.



ASKABIDE ZORROTZA

Zorrotza eta metroa.

Maitasun eta gorroto istorioa

Bilboko metroaren 1. eta 2. lineak planifikatzeko orduan, Zorrotza ibilbidetik kanpo uztea izan zen akats nagusietako bat. Itsasadarraren azpiko pasabidea Lutxana eta Gurutzeta artean egin beharrean, San Mamesen egin izan balitz, Zorrotza 2. lineako lehen geltokia izango litzateke, eta metro geltokia izango luke 2000ko hamarkadaren hasieratik.

Baina, kudeatzaile publikoen utzikieraren ondorioz, duela 25 urte posible izan ez zena, partzialki konpon daiteke etorkizun hurbilean. FEVEren geltokia lurperatzeak eta metroaren 4. linearen trazadura berriak egoera horri irtenbidea ematea ahalbidetuko lukete.

Horregatik, funtsezkoa da lehenbailehen eta abiaduraz handiz aurrera egitea auzoarentzat garrantzi handia duten bi eraikuntza-proiektu horien idazketan. Metroa Bilboko hegoaldeko auzoetara, eta horien artean Zorrotzara, iristeko apustua egiteko garaia da.

Geltokia lurperatzea 120 milioi euro ingurukoa izango litzateke, Bilboko Udaleren eta ADIFen artean ordainduko litzateke, eta 2030 baino lehen egin liteke. Aldi



RAÚL MÉNDEZ
EH Bilduko batzarkidea
@rmurigoitia

“ *Esan dezakegu*

teknikoki eta

ekonomikoki

posible dela metroa

Zorrotzaraino

heltzea hurrengo

hamarkadaren

hasieran

berean, Bilboko metropoli-trenbidearen 4. lineako eta hegoaldearen eraikuntza-proiektuaren idazketa bizkortu behar da. 300 milioitik gorako balioa duen proiektua da hori, lurperatzearekin denboran eta faseetan egokitu behar dena.

Azken batean, metroaren 4. linearen trazadura berria Moyua geltokitik hasi beharko litzateke, Irala eta Errekaldetik igarota, eta, ondoren, Basurtuko ospitalearen inguruan dagoen FEVEren egungo linearekin bat egin, Zorrotzaraino iritsi eta Alonsotegin Enkarterriarekin lotu beharko litzateke. Bertan,

kotxetegi eta tailer berriak proiektatu ahal izango lirateke. Beraz, esan dezakegu teknikoki eta ekonomikoki posible dela metroa Zorrotzaraino heltzea hurrengo hamarkadaren hasieran.

Mugikortasun paradigma berri baten aurrean gaude, apurka-apurka, ibilgailu pribatua alde batera utzi eta garraio publikoa zein gutxiagoko kutsatzen duten garraio-bideak erabiltzera eraman-go gaituena. Horretarako, ezinbestekoa da kalitatezko zerbitzu publikoa eskainiko diguten garraio-azpiegitura berriez hornitzea, baita egungo maiztasunak eta ordutegiak hobetzea ere.

Metroaren 4. linearekin, Zorrotza Bilborekiko konexioak hobetuko ditu, eta metroaren sistemaren integratuta egongo da horrek dakarren guztiarekin: gaueko zerbitzua, tarifa integratua, lineen transbordoak doan, etb.

Gorroto-diskurtsoen, muga-zergeren, gerren eta berrarmatzearen garaian, eman diezaigun ilusio pixka bat gure auzoari. Lor dezagun guztion artean hau benetako maitasun istorio batean bukatzea.

Hurrengo geltokia... Zorrotza!



Munduaz ahaztea

Bizitza, sinple sinpleak irudituagatik barneratzen zailak diren irakaspenez bete dago. Denborak baino ez ditu ekartzen horietako batzuk, hausnarketak eta norbere buruaren azterketa sakonak bestek. Erraz esanda, zaila dela kontua. Azkenerako gauza zentzudunak, logikoak direla konturatzen zara. Baina horra hor paradoxa, sufrimendu eta pairamen asko behar da horren ondorio argira iristeko.

Gatozen zehatzagora. Besteekiko enpatia ikasi egiten da. Eta ez naiz ari besteen lekuan jartzeaz bakarrik, hori izanagatik enpatia esanahia berez. Besteek diotena zergatik dioten ulertzeaz ari naiz; askotan hurkoari zer bait aurpegiatzean, kontuak ateratzean, larderiaz hitz egitean, nor bere buruaz ari dela ulertzeaz. Hau da, A-k zer bait jakinarazten dio B-ri, beretzat garrantzitsua den zer bait, berezia oso. B-ren erreakzioa, ordea, ez da izan A-k espero zuena bezalakoa. Hotza izan da, ez da harengatik behar adina poztu, are, komentario sarkastiko bat edo beste ere bota dio. Normala den bezala, zapuztu egin da A, lagunarekin mindu. Erantzun zeharo gizatiarra, bestalde. Baina aztarrika hasiz gero, barnera begira jarrita,



ASIER URKIZA

“ Ez dira garai

hauek beste

batzuk baino askoz

ilunagoak,

eta halere badago

hori sinestarazteko

nahi bat...

honelako ondoriora irits gaitezke: B-ren erantzuna ez da izan A-rekikoa, A-k esandakoa beragan piztutako gatazka eta azaleratuko arrakalek eragindakoa baizik. Alegia, A-rekin baino, bere buruarekiko norgehiagokan ari dela B.

Horrela gabilta denak finean, bestearekin ari garelakoan gure buruarekin borrokan. Gure nahi, desio, zaputaldi eta minekin. Bestearekin ari garelakoan, bai, maiz gainera bestearengan jarriz gure buruarentzat den amorrua, ustez bestea gorrotatuz ispilu-joko baten bidez gure burua gorrotatzen ari garenean. Horrekin ez dut esan nahi bizitzan gertatu oro gure buruaren luzapena besterik ez denik, kanpo

mundurik egon ez eta egoa baino existitzen ez denik. Ez. Kanpo mundua egon badago eta zilegia dirudi horrekiko maitasun, gorroto, arbuio edo miresmen jarrerak garatzea. Bietako zein gauden unean gorpuzten, baina, ez da erraza bereizten. Borroka intimoa eta sozialean ari garen. “Pertsonala politikoa da” esan zuen feminismoaren bigarren olatuak. Eta bai, baina pertsonala pertsonala ere bada, eta politikoa politiko. Bietako bakoitzak bere autonomia gordetzen duela, alegia.

Tira, arinkeria ere ematen du garaiotan horrelakoez mintzatzea. Mundua hankaz gora dagoela entzuten da, bateko gerra besteko agintari autoritario. Faxismoaren gorakada eta neoliberalismo basatiaren enegarren kokxa estutzea. Noiz ez du munduak gerrarik ezagutu, ordea? Hilotzez beteta egon da nor eta Europa bera, XX. mende erdialderaino ia. Ez dira garai hauek beste batzuk baino askoz ilunagoak, eta halere badago hori sinestarazteko nahi bat. Izango da akaso albistegiari begira diezaigun fikzio kate bati bezala, Netflixen azkenengo telesaila begiratzen den moduan, gerra bideojoko hutsa bailitzan... Horrela, gure buruaz ahaztu arte, zeinak, ondorio gisa, munduaz ahaztea ere ekarriko baitu, jakina. Izan ere, zer da enpatia?

**Diana**

Nik ez dakit ondo euskaraz, baina Euskaraldiak ni bezalakoak euskaraz egiten animatzea lortzen duela uste dut.

**Chamorro**

Semeari euskaraz hitz egiten saiatzen gara. Etorkizuneko balizko lan aukerengatik ez ezik, gure hizkuntza mantentzeari garrantzitsua deritzogulako.

/ IRATZE PÉREZ

Euskaraldia gertu

Zer da euskara zuretzat?

**Nagore**

Nire garaian ez zegoen euskara ikasterik, baina gaur egun nahitaezkoa dela uste dut, Euskal Herriko hizkuntza baita. Alaba nagusiak badaki eta horrek harro sentiarazten nau.

**Iker**

A ereduiko ikasle kaxkarrira nintzen eta ez dakit euskaraz, baina semeek euskaraz egin dezaten funtsezkoa iruditzen zait; beraz, hori indartzen saiatzen gara.

**Conchi**

Semeak badaki euskaraz, eta alabak ondo jakiteari garrantzitsua deritzot. Ondo ikasteko baliabideak ematen saiatzen naiz.



ZORROTZA HERRIGINTZAN


ZORROTZAKO BATZOKIA

Erreserbetarako telefonoa: 94 405 92 63
(bazkariak, afariak, urtebetetzeak, ospakizunak...)

2025EKO MAIATZAREN 15ETIK 25ERA

EUSKARALDIA

*Elkar mugituz
egingo dugu*



EMAN IZENA

euskaraldia.eus



Bilbao

UDALA
AYUNTAMIENTO


AZOKA PARKEA
PARQUE DEL FERIA

CLOWN

ZORROTZA

MAIATZA
MAYO

09-10-11



2025

KULTURA
BARRUTIK

B

Bilbao